

## 24. Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia

**Taldeak:** Zoroen itsasontzia, Hortzmuga, Markeliñe, Rue Barre, Deabru Baltzak, Trapu zaharra, Sacude... **Non:** Lekeitioko kaian, kaleetan eta plazetan. **Noiz:** uztailaren 12an, 13an eta 14an.

## Kaleko arteak zeru, lur eta itsasoaren konkistan

HORRELAKOETAN esan ohi dena esango dudala eman dezake, eta hala ere bota egingo dut, errealitatetik gertuago dagoelako topikotik baino: Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdia bakana da, zalantzarik gabe aparta, maila horretako gainerako ekimenean aldean. Ez baitu klowne, zirko, malabarismo edo antzeko proposamenean oinarritzen bere ekarpena; abangoardiak osatzen baitu bere eskaintzaren funtsa, eta antzerki independenteak, kale-arte garaikideak, berria den sormen orok. 25 urte darमतate horretan. Alegia, ez dela ahuntzaren gauerdiko ezutirik hemen.

Lekeitioko jaialdia lehen izan zen kale kultura hauspotzen, eta berria berritzen eman du mende laurden hau, nazioarteko izaera areagotzen, bertaritzen den ikuslegoa gero eta jantziago bilakatzen, zeru-lur-itsasoak beretzat hartzen. Aurten goan kaia izango du, besteak beste, espazio konkistatu berria.

*The Ship of the Fools* edo Zoroen Itsasontziak –Azart kultur elkarteak kudeatua, hainbat herrialdeetako aktoreak dira tripulatuzaileak–, Pasaiaiko urak behin-behingo utzi eta Lekeition porturatuko da. *Monsieur Jourdain xelebrea* antzeztera datoz, Molièreren *Le Bourgeois Gentilhomme* obra oinarri hartu duen obra da, M. Bulgakov erusiarra idatzia. Ia estreinaldia dela esan lite-

ke, ez baitute orain arte aukera handirik izan taularatzeko. Parte-hartzaileek diotenez, munduko hizkuntza guztien gorazarre modukoa da obra. Portutik portura dabilen eskifaia han eta hemen zenbait hizkuntzatatik hartutako ele, esaldi eta abestiak nahasiko baititu ikuskizunean (tartean, katalana, italiara eta holandesa). Aipagarria, bestalde, herri xehea euskaraz mintzo dela obran, eta burgesak gaztelaniaz.

Marea gora kontuan hartuta, hiru saio eskainiko ditu Zoroen Itsasontziak, Lekeition: ostiralean (uztailak

12) 19:00etan, larunbatean 19:30ean, eta igandean 20:00etan. Ikusleek kaitik jarraitu beharko dute saioa, kofradiaren aurrean jarriko diren harmailetatik. Kopurua mugatua izango da eta bakoitzak bere pisuaren arabera sarrera ordainduko du: kiloko 17 zentimo. Gizenak egon bitez lasai, 77tik gorako kilorik ez baita kontuan hartuko. Alegia, inork ez du 13 eurotik gora pagatu beharko. Ordaindu beharreko ikuskizun bakarra izango da.

Espazio horizontala aski ez eta bertikala ere konkistatza ez joko dute Lekeition, herriko kanpandorretik zintzilik jarri eta dantza ikuskizuna eskainiko baitu Kataluniako Sacude taldeak. Duela zenbait urte egin bezala, aurtengoan ere aho bete hortz utziko dituzte ikusleak, elizaren estilo gotikoa arte garaikidearen euskarri bilakatuta.

Stock Umoreak, arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen nazioarteko eskola sortu berriak, Lekeitio Off egitasmoa aurkeztuko du, bestalde. Hamabost eguneko tartean zazpi umorezko lan labur erakutsiko dira kaleetan (lehen saioa dagoeneko egin da, ekainaren 30ean). Erabat bukatu gabeko obrak dira gehientsuenak, jaialdira bertaritzen den publikoaren erreakzioa lagungarri izango dutenak. ■

**Garbine Ubeda  
Goikoetxea**

